

1979-X-26

Donostian, Diputazio Jauregian, 1979.eko Urriaren 26an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, X. Diharce, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin, J. M. Satrustegi, eta A. Zavala euskaltzain jaunak; P. Altuna, J. M. Aranalde, M. Atxaga, P. Charritton, J. M. Etxaburu, J. Fernandez Setien, X. Garmendia, J. Goikoe-dia, J. L. Lizundia, I. Sarasola, M. Ugalde, A. Zatarain, eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Villasante euskaltzainburuak, Pierre Bordaçaharre, Etxahun Irurikoa zenaren hilberria eman du. Haritschelhar buruordeak egin du gero euskaltzain urgazle zenduaren eta bere lanaren aipamena.

Azken batzarreko agiria ontzat eman da.

GOIZEKO BILKURAREN BERRI

San Martin euskaltzaina itzultzaileen eskola sortzeko premia gorriaz mintzatu da. Buru egingo duen zuzendari baten gertatzea aipatu du gero, eta bere ikasketak egitera norabait bialtzeko bidea ere balegokeela.

Irigoyen euskaltzainak deklinabideari buruz egindako lana aurkeztu du, etorritako oharrek kontuan harturik. Pare bat puntu kenduz gero, ia dena dago erabakitzeko prest, eta datorren bileran hartuko da azken erabakia.

H-ren arazoak beste luzapen txiki bat izan du, hartutako oharren kopurua kontuan dela. Ibon Sarasolari zuzenketa guztiak sailkatu eta zerrendak bateratuz azken erabaki baterako prestatzea eskatu zaio. Datorren Azaroko bilera batean azken erabakia hartzeko gelditu da.

Alfabetoko letren izenak ere ikusi dira, eta ikutu batzu emanik, azken erabakirako gertu gelditu da lana.

BATZORDE LANAK

Administralgo hiztegiaren batzordea bildu da goizean. J. L. Lizundia batzorde idazkariak eman du bilkuraren berri, hitz zerrenda banatuz. Bestalde, Angel Garcia Ronda, E.K.N.an "Administración Municipal" sail-leko kontseilaria bilkuran zela adierazi du, Kontseilaritza eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak zein mesedegarri diren azpimarratuz.

TXOSTENAK

J. M. Etxaburu "Kamiñazpi" jaunak, *Har eman, hartu eman* esaerei buruz txostena irakurri du. Eztabaida sortu du bere hitzaldiak.

Pedro Pujana jaunak *ahalezko aditz-jokoak* aditz formak aztertu ditu, batez ere Altuberen lanetan oinarriturik. Txosten honek ere solasaldi luzea sortu du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Luis Villasante

Idazkaria
J. M. Satrustegi